



## NOLA BETE ORDAINKETA-GUTUNA

Izena emateko eskaera betetzen hasi baino lehen, azterketa-eskubideen **tasak ordaindu** behar ditugu “**ordainketa-gutunaren**” bidez.

Esteka hau erabil dezakegu ordainketa egiteko:

<https://hacienda.navarra.es/ingresosnotributarios/frm704.aspx?idioma=eu-ES&cn=04OPOSHEO>

Estekaren gainean klikatuz gero, pantaila berri batera sartuko gara, eta han **aukera** hauek izanen ditugu **nola ordaindu nahi dugun hautatzeko**:

- **Modu elektronikoa ordaintzea**: horretarako, txartel bidez ordaintzeko sistema seguru bat erabili behar dugu.
- **Banku entitate batean ordaintzea**: horretarako, dokumentua inprimatu behar dugu, eta nahi dugun banku entitatera joan tasak ordaintzera eta dokumentua zigila diezaguten.
- **Kontuan kargu bat eginez ordaintzea**: horretarako, ziurtagiri digital bat izan beharko dugu, eta AUTOFIRMA osagaia, ordainketa bat modu horretan egin behar dugun lehen aldia izanez gero.

**Ordaintzeko bidea hautatu** ondoren, “Jarraitu” sakatu behar da eta hurrengo pantailara joanen gara gure **datu pertsonalak** sartzeko. Ohi denez, **izartxo** (\*) duten eremuak **nahitaez** bete behar dira.

**GARRANTZITSUA:** “Kontzeptuaren xehetasuna” izeneko eremuan sartu behar dugu Kidegoari, Espezialitateari eta Hizkuntzari buruzko **nahitaezko informazioa**. Zernahi arrazoi dela-eta, ez badugu halakorik erantsi prozesua egitean, frogagiria inprimatu eta datuok eskuz gehitu beharko ditugu dagokien leihoan; ondoren, berriz eskaneatu beharko dugu, ordainketa-gutuna entregatu orduko ager daitezen.



Castellano | Euskara | Français | English  
Bilatzaile berria erabili! Bilatzailea Sartu hitzak  
Bilatu

NAFARROA ZERBITZUAK GAIAK GOBERNUA AKTUALITATEA

## Lanbide heziketako irakasle teknikoek oposizioak (704)

[Ayuda](#)

Nahitaezkoa da (\*) duten eremuak betetzea, zure eskabidea onartua izateko.

Ordainketa-gutuna  
Datu generikoak

Urtea: 2020    Kontzeptua: LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN OPOSIZIOAK

Zentro kudeatzailea: 41000 - D.G.Recursos Educat.    Zenbatekoa: € 40,00

Kontzeptuaren xehetasuna: **INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK / EUSKARA**

Titularraren datuak

Datu pertsonalak

Herrialdea: ESPAÑA

Pertsona fisikoa:     Persona juridikoa:

IFZ/IFK: \_\_\_\_\_

Izena edo sozietate-izena: \_\_\_\_\_

Lehen deitura: \_\_\_\_\_

Bigarren deitura: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

Helbidea

Kalearen izena: \_\_\_\_\_

Zenbakia: \_\_\_\_\_ Eskailera: \_\_\_\_\_ Pisua: \_\_\_\_\_ Atea: \_\_\_\_\_

Herrialdea: ESPAÑA    Herria: \_\_\_\_\_

Probintzia: Navarra    Posta kodea: \_\_\_\_\_

Aurkezlearen datuak ordainketa telematikoa Internet bidez egiteko  
(bete behar da ordainketa web-orriaren bidez egiten bada eta soilik titularrak eta ordainketa telematikoa tramitatu behar duena pertsona berak ez badira)

IFZ/IFK: \_\_\_\_\_

Jarraitu sakatzen baduzu hurrengo pantailara igaroko zara ordainketa-gutuna inprimatzeko edo ordainketa egiteko.

Utz    Jarraitu

Hurrengo pantailara iraganik, gure ordainketa-gutunaren **Zenbakia** agertuko da, eta horrek bidea emanen digu:

- A) **ordainketa telematikorako** sisteman **sartzeko**;
- B) ordainketa-gutuna **inprimatzeko** , bankura joan eta han ordaintzeko.

Gomendagarria da ordainketa-gutunaren **zenbaki hauek** eta kontrol kodea **idaztea**, gerta daitekeelako geroago, zernahi dela-eta, dokumentua **berriz ere inprimatu** behar izatea.



Castellano | Euskara | Français | English  
Bilatzaile **berria** erabili! Bilatzailea Sartu hitzak Bilatu

**NAFARROA ZERBITZUAK GAIAK GOBERNUA AKTUALITEA**

### Ordainketa-gutuna aurkeztea aurrekontu-kontzeptuak direla-eta.

Zuzen hartu **7042001751820** zenbakia **U7COATPS3L** kontrol kodea dituen ordainketa-gutunaren informazioa.

Hurrengo urratsa ordaintzea da eta bi aukera dituzu horretarako:  
- Ordainketa-gutunaren ordezkagiria inprimatu (**Inprimatu botoia**) eta banku-entitate batera joatea ordainketa egitera.  
- Ordainketa egitea, zenbatekoa hau izanik: 40.00 € modu telematikoa (**Ordaindu modu telematikoa botoia**).

**ORDAINKETA MODU TELEMATIKOAN EGIN NAHI BADUZU, GOGORATU ALDEZ AURRETIK ORDAINKETA-GUTUNA INPRIMATU BEHAR DUZULA. HORRELA, ORDAINTZERAKOAN ARAZORIK BADAGO, BERRIZ SARTU AHALKO ZARA ETA GUTUNA INPRIMATU ORRIALDE HONETAN BERTAN BEHERAGO ADIERAZITAKO KONTSULTAKO DATU-ORRIETAKO BATETIK, HORRELA EGIAZTATUKO DUZULARIK HURA ZUZEN ORDAINDU DUZULA.**

Ordaindu modu telematikoa Inprimatu

OHARRA: Etorkizunean berriz inprimatzeko edo ordainketa telematikoa geroago egiteko, Nafarroako Atarian dagoen esteka honen bidez eskura ditzakezu zure ordainketa-gutunak.  
[Nafarroako Ataria](#).

Ez baduzu ziurtagiri digitalik, zure kontrol kodea eta zenbakia erabili ditzakezu zure ordainketa-gutunak kontsultatu, inprimatu eta hurrengo esteka.  
[hurrengo esteka](#).

[Nafarroako Gobernua](#) Jar zaillez gurekin harremanetan | Erabilerraztasuna | Lege abisua | Webaren mapa

• **A aukera: ordainketa telematikoa**

Ordainketa telematikoa hautatuz gero, "Ordaindu modu telematikoan" botoia sakatu behar dugu nahiago dugun **identifikazio sistema** aukeratu ahal izateko:

- Ziurtagiri digitala
- Cl@ve sistema
- NANA + **Nafarroako Ogasuneko PIN**aren azken 4 digituak



navarra.es

Castellano Euskera Français English

Utilice el buscador! introduzca palabra/s buscar

NAVARRA TRÁMITES TEMAS GOBIERNO ACTUALIDAD

Identificación por Certificado de Usuario

### Pago Telemático

**Certificado de Usuario**

Utilice un certificado digital válido para acceder.

Consulte las [certificaciones admitidas](#) para las tramitaciones on-line.

Continuar

**Otros accesos**

DNI + PIN

cl@ve

Identifikazioa egin ondoan, hautara izanen dugu **txartelarekin** ordaintzea edo banku batean **helbideratzea**:



navarra.es

Euskara Français English

buscador introduzca palabra/s buscar

NAVARRA SERVICIOS GOBIERNO TEMAS ACTUALIDAD

Ayudas y Becas Portal de contratación de Navarra Empleo Público Servicios por temas

### Pago Telemático

[Ayuda](#)

**PAGO CON CARGO EN CUENTA** (necesario certificado digital o DNI+PIN)

**PAGO CON TARJETA**

cancelar



## A.1- Txartelarekin ordaintzea

Txartelarekin ordaintzea hautatuz gero, “Redsys” ordaintzeko sistema seguruan sartuko gara, eta pantailan agertzen zaizkigun jarraibideak bete beharko diegu:


The screenshot shows the Redsys payment interface. At the top, there is a language selection dropdown set to 'Castellano'. Below this is a progress bar with four steps: 1. Selección método de pago, 2. Comprobación autenticación, 3. Solicitando Autorización, and 4. Resultado Transacción. The main content is divided into two panels. The left panel, titled 'Datos de la operación', contains the following information: Importe: 40,00 €; Comercio: GOBIERNO DE NAVARRA (ESPAÑA); Terminal: 28091460-1; Pedido: 991041; Fecha: 21/01/2020 10:30; Descripción producto: 7046620002111T92065F77 (18206591K) MOROTE DONAZAR, MIKEL. The right panel, titled 'Pagar con Tarjeta', shows fields for 'Nº Tarjeta:', 'Caducidad:' (with mm and aa sub-fields), and 'Cód. Seguridad:'. There are 'Cancelar' and 'Pagar' buttons at the bottom. Logos for ServiRed, VISA, Mastercard ID Check, and SafeKey are visible at the bottom of the interface.

Urrats hori egin ondotik, sistemak **frogagiri bat sortuko du**; huraxe sartu beharko dugu “Ordainketa-agiria” atalean, oposizio-prozesuan izena emateko eskaera formalizatzean.

**Dokumentua dagoen-dagoenean sartu** behar dugu (hiru orriak), editatu gabe eta orririk kendu gabe.

## A.2- Kontuan kargu bat eginez ordaintzea

Bide horretatik ordaintzeko, ezinbestekoa da **ziurtagiri digitala** edukitzea, ordainketa egiteko bide hori lehen aldiz erabiliz gero, edo NANA + PINa, beste noizbait erabili bada.



navarra.es


Euskara | Français | English



buscador

NAVARRA SERVICIOS GOBIERNO TEMAS ACTUALIDAD

Ayudas y Becas Portal de contratación de Navarra Empleo Público Servicios por temas


**Pago Telemático** [Ayuda](#)

Usuario: 

Obligado al pago	NIF	Nombre o Razon Social	
			
Concepto	Ejercicio	Modelo	Importe
	2020	704	40,00 €
Datos del Pago	Escenario de pago		
	<input checked="" type="radio"/> Nombre Propio <input type="radio"/> Provisión de Fondos <input type="radio"/> Representación		
	Código IBAN de cargo		
	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

• **B aukera: bankuan ordaintzea.**

“Inprimatu” sakatzean sistemak **PDF formatuko dokumentu** bat sortzen du: hiru orriko ordainketa-gutuna da (hiru ale: bankuarendako, interesdunarendako eta espedientea).



Gobierno de Navarra		(*) <b>704</b>			
Centro gestor	41000 - D.G.Recursos Edi				
Fecha emisión	21/01/2020				
Nº de carta de pago (*)	7042000756856				
Código Control	Y7F2NN6T66				
<b>CARTA DE PAGO</b>					
Obligado al pago	Nº Identificación		Nombre o Razón Social (*)		
	N.I.F. / C.I.F. (*)	N.I.F. / Pasaporte			
	Correo electrónico		Teléfono		
	Domicilio		Población	Cód. Postal	País
	Berriozar		Berriozar	31013	ES
Concepto o motivo: 04OPOS PROF:INGRESO,ACCESO Y ADQUIS.NUEVAS ESPECIALID C.DOCENTES 2020					

Hirurak **inprimatu** behar ditugu, eta Nafarroako Gobernuarekin lankidetzaz diharduten **banku entitateetako** batera **joan**, dagokigun ordainketa egitera.

**2. PAGO PRESENCIAL:**

Acudiendo a cualquiera de las oficinas de las entidades financieras colaboradoras del Gobierno de Navarra:

Abanca Corporación Bancaria, S.A.	Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A.
Banco de Sabadell S.A.	Banco Popular Español, S.A.
Banco Santander, S.A.	Bankia
Bankinter, S.A.	Bankoa, S.A.
Caja de Arquitectos S.C.C.	Caja Laboral Popular Coop. (Laboral Kutxa)
Caja Rural de Navarra, S.C.C.	Cajamar Caja Rural, S.C.C.
Deutsche Bank, S.A.E.	Evo Banco, S.A.U.
Ibercaja Banco	Kutxabank, S.A.
La Caixa	Novo Banco, S.A.
Targobank S.A.U.	

Ordainketaren ondotik, **espedienterako alea eskaneatu** beharko dugu, behar bezala sinatua eta **zigilatua**, izena emateko eskaeran sartzeko, “Ordainketa-gutuna” atalean.

Ordainketa bat baino gehiago eginez gero, espezialitate bat baino gehiagotan eman dugulako izena, prozesua berritu beharko dugu eta **dokumentu guzti-guztiak sartu beharko ditugu** aipatu laukitxoan.